

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**5/2023 Foru Araua, otsailaren 22koa, 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onesten da alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta**

Arabako Batzar Nagusiek, 2023ko otsailaren 22an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

5/2023 Foru Araua, otsailaren 22koa, 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onesten da alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, otsailaren 7ko 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onesten da alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da otsailaren 7ko 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onesten da alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 22a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**